

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Arrakasta handiko azoka

Larramendi Bazkunak aurreko larunbatean Goikoplazan antolatu zuen Gastronomia eta Artisau Azokak jendetza erakarri zuen / 10-11

AIURRI

## Marka saiakera, Oialumen

Nerea Arruti kanako enbor batekin ahaleginduko da, igande honetan / 13

**Gurutze lantzi Igerategi urnietarra biktimatzat jo dute ofizialki / 8-9**

**Tutoretzapeko etxebiziza proiektua adineko pertsonei begira dago, Urrietako Errekalde auzoan / 7**

~SASKI SALMENTA~  
**XIBEROAKO**  
IKASKOLEN ALDE



**AZAROAREN 27RA ARTE**

PETTARRA	ARDAILA	PASADURUA
		
50€	57€	68€
<small>Ahate gibel berrosatua, ezti, bokota artisaialak, ardi gasta kinoa eta pastak.</small>	<small>Ezti, bokota artisaialak, kiz, urtik bi ardi gasta, bokota gatzakak, erresomanta, pastak eta flaura.</small>	<small>Xeroki gata, bokota artisaialak, Ardi gasta kinoa, xiberoako azoa, lukariko idoma eta pastak.</small>

**ESKAERAK EGITEKO:**  
Baga: [atxega@buhameak.eus](mailto:atxega@buhameak.eus)  
Biga: [www.ikaskoli.eus](http://www.ikaskoli.eus)  
Asko eskertuko dugu kontu korronte bidez ordaintzea: ESO8 3035 0036 15 0360702619  
Mesedez zuen izena jarri



Aiora Jauregi Pagalday (Ataun) eta Naroa Asensio Gaston (Andoain) izanen egitasmoko kideak. AIURRI

# “Konturatu ginen ez daukagula lehiaketetatik kanpo idatzitako lanak non argitaratu”

## IZANEN GAZTE ALDIZKARIKO KIDEAK

Aurki kaleratuko du lehen alea izanen gazte aldizkariak: “Hasieran, ez zegoen ezer”. Gaur gaurkoz, euskarri digitalean izango da irakurgai

### Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Lehiaketa-testuingurutik kanpo sorkuntzarako plaza hanka motz gelditzen dela sentituta, Izanen gazte aldizkaria sortu zuten zortzi lagunek: Haizene Merino Perez (Sopela), Enara Gallastegi Berrenetxea (Dima), Elaia Aizpurua (Zarautz), Maria Zarrabeitia Mendez (Abadiño), Naia Urtaran Bilbao (Izarra), Irati Gallastegi Molero (Elorrio), Aiora Jauregi Pagalday (Ataun) eta Naroa Asensio Gaston (Andoain). Urruzuno literatur lehiaketaren harira egindako egonaldia abiapuntu hartuta, eragile bezain erakusleho izan nahi du komunikazio-proiektuak.

**Urruzuno literatur lehiaketako aurtengo egonaldia du abiapuntu, antza, izanen gazte aldizkariak.**

Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen lehiaketa da Urruzuno. Arantzako aterpetxera joan ohi gara, hogeitabat pertsona, gutxi gorabehera. Bertan, egonaldia egiten dugu. Euskal kultur gintzan erreferente direnen bisitak jasotzen ditugu, baita tailerrak egin ere, bai idazketari begira, bai gure artean elkar ezagutzeko. Bada, adin-tarte jakin batek aurrera, ezin zara Urruzunora aurkeztu eta, beraz, ez daukazu zure lanak inora bidaltzerik. Hori horrela, idazteari utziko ote genionaren beldurraz, zerbait egin genezakela pentsatu genuen, urte osoan idazten jarrai genezan.

**Eusko Jaurlaritzak kudeatutako lehiaketa izanda, ba al dute gainerrako probintzietako kideek parte hartzeko aukera?**

Euskal Herri osoko parte-hartzea jaso ohi du lehiaketak, baina eta egia da Nafarroatik zein Iparraldetik ez direla asko aurkezten. Dena dela, aberasgarria da txoko ezberdinetako jendea elkartzea. Bost egun izan ohi dira, abuztu amaiera aldean. Askok aurten ezagutu dute elkar, lehen aldian baitzuten, baina bada esperientzia errepikatzen duenik.

Behin egonaldia amaituta, harremana mantentzen saiatzen gara. Iaz, Euskal Idazleen Elkartek egonaldiaren gaineko kronika argitaratu zuen beren urtekarian. Horregatik, Durangoko Azokara gonbidatu gintuzten eta, orduan, urte osoan, birritan-edo ahalegintzen gara elkartzen, harremana ez galtzeko. Aurten, esaterako, azaroaren amaieran biltzeko asmoa dugu,

aldizkariaren harira. Eta, jarraian, Durangoko Azoka dator. **Gazte aldizkaria dela diozue. Gaztetasuna, ordea, subjektiboa omen... Nork egina da? Eta nori zuzendua dago?**

Urruzuno lehiaketaren harira egonaldia egin dugun zortzi kidek osatzen dugu taldea. Bertara, DBH3tik Batxilergoaren 2. mailara bitarteko jendeak du aukera aurkezteko. Guk ere ez daukagu oso argi zein adin-tarte biltzen den “gazte” horren barruan. Berriki, lehen lanak jaso ditugu, eta 13 urtetik 32 urtera bitarteko jendeak bidalitakoak dira horiek

**Bidean duzue lehen alea, eta horra orain aste batzuk bota zenuten amua: “Hasieran, ez zegoen ezer”. Zuek ere ezerezetik hutsetik hasi duzue proiektua, ezta?**

Konturatu ginen ez daukagula lehiaketetatik kanpo idatzitako lanak non argitaratu. Horren aurrean esan genuen “zergatik ez aldizkari bat sortu gazte guztiek bat egin eta elkarren lanak irakurri ahal izateko zein harremanak sendotzeko?”. Hortik hasi zen; bat-bateko gauza izan zen eta egun batetik bestera sortu genuen. Egonaldiko azken egunetan ibili ginen ideari forma ematen. Hortik bi astera, jada, sortuta geneuzkan webgunea eta Instagram kontua.

**Gazte sortzaileentzako topaleku baten faltan, zergatik aldizkari bat?**

Hasieran Urruzunokoei zuzendutako aldizkaria egitea pentsatu genuen, gure artean, gure lanak zabaltzeko. Baina, ohartu ginen, gure inguruan bazela lehiaketetatik kanpo idazten duen jendea. Ondorioz, sortzaile horiek guztiek espazio baten beharra dutela ikusi genuen, beren lanak ezagutzera emateko. **Digitalerako hautua egin duzue. Ezagutuko al dute irakurleek paperezko ediziorik?**

Diru-kontuak mugatzen gaitu eta ez diogu buelta handirik eman. Gainera, egun, teknologia berriekin erraza da plataforma digitala sortzea.

**Zerekin egingo du topo irakurleak aldizkaria irekitzean?**

Askotariko lanak bidali dizkigute, gehienbat, poesia. Baina ez da horretara mugatu jaso duguna: komiki-tira, bideoa, narrazioak, poema musikatua... Abaniko zabala biltzen du gure proposamenak.

Espero genuena baino lan gehiago jaso ditugu. Hasieran,



Izanen egitasmoa kideak, besteak beste, Itxaro Borda idazlearekin batera. IZANEN



Euskal Herri osoko kideak elkartu dira Izanen egitasmoan. IZANEN

soilik, Urruzunoko jendearen lanak jasoko genituela uste genuen. Baina, ez da horretara, soilik, mugatu. Adin-tarte zabaleko jendeak hartu du parte lehen alean. Jendeak badu bere lana partekatzen gogoia.

#### Zenbaterako maiztasunez kaleratuko da aldizkaria?

Ale digital bat egin nahi dugu, osorik, webgunean argitaratzeko. Azaroak 22-23 aldera izango da, ziurrenik. Maiztasuna ez daukagu zehaztuta. Ikasleak garenaz, denborak uzten digun beste egiten baitugu.

#### Zortzi kidek osatzen duzue taldea. Nola laburtu distantziak zuen artean aldizkaria kudeatzeko?

Whatsappeko taldea daukagu eta hortik idazten diogu elkarri. Gogoz gaude, ordea, aurrez aurre, topaketa egiteko, egonaldia amaitu denetik ez baitugu elkar ikusi.

#### Zein balio erantsi ematen dio zuen sorkuntzari lehiaketatik at dauden espazioak egoteak?

Aitortza ematen dizu lehiaketa batean saria jasotzek. Baina hori gertatzen ez bada, badirudi balioa galtzen duela zure lanak. Era berean, gure adinaren

bueltan ez dugu espaziorik gure lana erakusteko. Ondorioz, gure baitarako gorde ohi dugu. Hala, ilusioa egiten digu gure lana beste batek irakurriko duela jakiteak.

#### Azaroaren hasieran amaitu zen lehen alerako proposamenak bidaltzeko epea. Nola egin, aurrerantzean, zuekin edukia partekatzen?

Helbide elektronikoa dugu sortuta, baita Instagram kontua ere. Bertara bidali beharko litzateke. Nolanahi ere, garrantzitsua da baimen bat betetzea, autoretza kontuetan arazorik egon ez dadin. Hori guztia gure webgunean dago eskegita.

#### Etorkizunari egiten dio erreferentzia "izanen" hitzak. Nora begira dago aldizkaria, zein bide hartu nahiko luke izanen gazte aldizkariak, aurrerantzean?

Guk ere ez daukagu oso argi. Gure helburua gazteen artean ahalik eta gehien zabaltzea da, etorkizunean ere, jendeak bere lanak argitaratu ahal izateko. Aurki argitaratuko dugun lehen alearen amaieran ipiniko dugu zein izango den bigarren zenbakiko amua edo gaia.



Abenduaren 3ra bitarte, joan den ikasturtean jorrotutako zenbait pieza argitaratuko dira, astero-astero, Aiurri.eus gunean. AIURRI

# Gazte Kazeta, erreportari gazteen erakusleia

Euskaraz, kazetaritza-jardunean trebatzea du xede herriko hiru ikastetxeek, Andoingo Udalaren Euskara Sailak eta Aiurrik martxan jarritako "Gazte Kazeta" komunikazio-proiektuak

#### Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Ikasgelak erredakzio-talde bihurtu zituen joan den ikasturtean "Gazte Kazeta" komunikazio-proiektuak Andoainen. Udaleko Euskara Sailak, herriko hiru ikastetxeek eta Aiurri aldizkariak, lankidetzan ondutako egitasmoa da, euskararen erabilera sustatzea ardatz. Era berean, idazketan trebatzeko aukera ematen die DBH 4.mailako ikasleei, baita ikus-entzunezko munduan murgiltzeko aitzakia ere. Berria da proposamena, nahiz eta aurrerari moduan, jada, egiten ez den Erreportari Gaztea Saria eduki.

Aiurriko lan-taldeko bi kazetariren formakuntza jaso ondoren, bost saioko ibilbidea osatzen dute ikasleek ekimenean. Taldeka bildu eta jakin-mina pizten dien gai bati tiraka osatzen dituzte beren piezak, tokiko komunikabideko bi erredaktoreak bidelagun: motoziklismoa, autoestimua, sare sozialen erabilera nerabezaroan, kalamua, euskal gastronomia... Nork bere

ezonegonetik, nork bere interesetik, makina bat aferari eusteko amua da egitasmoa, kazetaritzaren begiradatik erreparatuta, jakina. Joan den ikasturtean, udaberrian, La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak izan ziren lehenak luma zorrotzen. Ondoren, lekukoa eman zieten Aita Larramendi Ikastolako ikasleei. Aipatu guztia ez da,

gainera, ikasgelako lau paretan artera mugatzen, izan ere, Aiurri astekariaren edizio digitalean txoko bat dute beren erreportajeek. "Gazte kazeta" du izena kazetaritza-proiektuak biltzen dituen kanalak.

Urritik hasita eta abenduaren 3ra bitarte, joan den ikasturtean jorrotutako zenbait pieza argitaratuko dira, astero-astero.



andoaINDARRA  
euskaraz



Aurtengo lehiaketako lau kategorietako saridunak. AIURRI

# Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa

XXVIII. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketaren sari-banaketaren ekitaldia egin zuten aurreko astean. 99 ipuin aurkeztu dituzte aurten ikasle gazteek, lau mailatan banatuta, eta irudimena eta originaltasuna isurtzen dituzten lanak saritu ditu epaimahaiak



Aurtengo lehiaketako lau kategorietako finalistak. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Sari-banaketaren ekitaldia bikain gidatu zuen, beste behin ere, Garazi Kamio idazleak. Ekitaldian saritutako ipuinen pasarteak entzun ahal izan ziren eta horretarako Katramila antzerki eskolako ikasleak aritu ziren kontatzaile-lanetan. Honako hauek: Eneko Abrego, Nerea Callejon, Eider Carrasco, Annet Mugica eta Xune Ubeda.

Bestalde, sariak musika-emanaldiekin tartekatuta ziren. Udall Musika Eskolako hainbat ikasle aritu zen. Honatx, musikariak: Oihane Telletxea, Inge Azpiroz Martin Sanchez eta Mikel Emezabalek osaturiko klarinete laukotea; Kerman Miguel gitarrarikaslea; eta, Leire Hernandez eta Enara Ibañez piano-joleak.

Sariak banatzen aritu ziren Andoni Alvarez alkatea, Marta Lasa kultura zinegotzia, Ainara Ugalde Martin Ugalderen alaba eta Yolanda Arrieta Euskal Idazleen Elkarte ordezkarria.

Epaimahai lanetan aritu dira: Juan Ramon Makuso, Inaxio Mujika, Karlos Linazasoro eta Garazi Kamio.

## A maila (10-11 urte)

Lehen saria: *Askatasunaren bidaiak*. Jannu Iriondo Audikana. Epaimahaiaren erabakia: "Ideia originala eta gaiaren trataera amaieran borobila da. Metafora baten bitartez idea humanista bat azaltzen du. Bizkortasuna erakusten du elkarriketaren bitartez".

Bigarren saria: *Heriotzaren bost frogak*. Aleix Nogales. Epaimahaiaren erabakia: "Planteamendu klasikoa eta ipuin tradizionalaren egitura du. Ondo idatzita eta kulturaz jantzia dago. Idazketa bikaina du".

Finalistak:

- *Ez du garrantzia non zauden, baizik eta zeinekin*. Maddi Zubeldia Jauregi.
- *Sira naturaren inguruan*. Jare Lizarralde Astigarraga.

## B maila (12-13 urte)

Lehen saria: Alienak gara. Olaia Kamio Mujika. Epaimahaiaren erabakia: "Originala. Irudimena eta fantasia ondo uztartuak daude. Daukan begirada ezohikoa da eta begirada horretan bestetikiko aurkakotasuna azaltzen da. Nerabe ikuspuntua azaltzen du".

Bigarren saria: *Elfo bat munda salbatu nahian*. Libe Legarra Sanchez. Epaimahaiaren

erabakia: "Fantasiatzeko pertsonaia bat gaur egungo gai kontemporaneo batekin uztartzen du. Lekuak ondo islatzen ditu".

Finalistak:

- *Oihan eta atmosferaren suntsiketa*. Alaia Etxaniz Makazaga.
- *Gozo-gozo*. Laia Ariznabarrera Blanco.

## C maila (14-15 urte)

Lehen saria: *Itzalen eta eguzkiaren gorreak*. Aiora Otamendi Baltasar. Epaimahaiaren erabakia: "Fantasiaren arauak ondo erabiltzen ditu eta eraikitzen duen mundua iradokitzailea eta koherentea da. Ipuinean, dokumentazio lana nabari da. Bukaera irekia dauka eta oso ondo idatzia dago".

Bigarren saria: *Basoaren isiltasuna*. Irune Bueno Artetxe. Epaimahaiaren erabakia: "Ikus entzunezkoaren eragina ikusten da, baina era berean, hizkuntza ondo menderatzen du. Gai da trama bat modu sinesgarrian eraikitzeko. Misteriozko bat da eta bukaera iradokitzailea dauka".

Finalistak:

- *Azken gaua*. Naroa Serna Sanchez.
- *Mundu berriak*. Hegoa Palacios Zabala.

## D maila (16-17 urte)

Lehen saria: *Zuloa zure barnean*. Naroa Asensio Gaston. Epaimahaiaren erabakia: "Trataera poetiko bikaina dauka, fina. Gaiaren originaltasuna azpimarratzeko da, eta bukaera perfektua. Garapen orekatua lortu du, oso ondo neurtua. Oso ondo idatzia eta hizkuntza kontatu nahi duenaren mesedetan dago".

Bigarren saria: Azken argi distira. Izaro Hernani Irulegi. Epaimahaiaren erabakia: "Gai tabu eta deseroso bat modu fin batean kontatzen du. Xehetasunaren aldeko apustua egiten du, deskribatzerako momentuan. Bukaera arte erritmoa ondo eramaten du. Heldutasun bat ikusten da lanaren atzealdean".

Finalistak:

- *Iraganeko oihartzunak*. Jone Telleria Albistur.
- *Iparrorratza*. Nora Esnaola Bastarrika.

## Bideo-sorta Aiarri.eus gunean

Tartean, Irune Bueno, Aiora Otamendi, Izaro Hernani eta Naroa Asensio sarituen hitzartzeak.



AIURRI

## Itasaren 50. urteurrena

Zaintza pertsonalerako produktuetan, medikuntzaren sektorean, etiketa autoitsaskorretan eta konpositeen fabrikazioan nazioarteko sona duen enpresa da Itasa. Sorabillan du egoitza eta aurreko astean egin zuten 50. urteurreneko ekitaldi instituzionala.

Urteurrena ospatzeko goi mailako ordezkariak hurbildu ziren lantegira. Besteak beste: Eider Mendoza, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Andoni Alvarez Lete, Andoaingo alkatea; eta Jose Luis Azkue, Eusko Jaurlaritzako Industria zuzendaria.



AIURRI

## Egunean Behin, saritu berriak

16D denboraldiaren lehen sei asteak igaro dira eta Aiurri taldeko kideen artean egindako zozketan, seigarren asteari dagokion irabazlea Txapar izan da. Argazkietan, aurreko bi asteetako irabazleak ageri dira: Nereita eta Mirener, hurrenez hurren. Lehen hiru asteetako irabazleak, aldiz, Beñat, Maite eta loritz izan dira. Denboraldi honetan saridunak Arruti gozotegiaren pasta-kaxa eskuratzen ari dira. Zorionak irabazleei! Eta, gainerakoei, ekin Egunean Behin!

## Burdinaren batzarra

Gauzatutako ekimenak eta etorkizunera begira dituzten egitasmoak hizpide izan zituzten Burdina elkarteak kideek, aurreko larunbatean egin zuten batzarraldian. Ezaguna denez, ondare historikoa berreskuratzea xede du Andoaingo taldeak. Bilkuran ibilbide osoan lagun izan zituzten hildako kideak aintzat hartu zituzten.



AIURRI



AIURRI

## Memoriaren eguna

Oroimenaren Egunean, herriko biktimak gogoan hartzeko ekitaldia egin zuten Andoaingen. Igande goizean izan zen, Jose Luis Lopez de la Calle parkean, Elkarbizi elkarteak antolatuta. Ohi bezala, Mikel Arregik egin zuen adierazpena. Aurten, Maria Paz Artolazabalen eskutik, lore eskaintza egin zuten biktimen alde parkean ipinitako "Askatasunari" eskulturaren.



AIURRI



Zaintza-ereduen esperientziak jaso zituzten Lekaion egindako jardunaldian. AIURRI

# Zaintza-ereduen lekukotza-bilduma

Beste urrats bat eman nahi du aurrera Urnietak herriaren zaintza sarearen gaineko hausnarketan: inguruko esperientzien bilduma osatu du, gertuko ereduak bidelagun bihur daitezzen herriko ekosistema osatzeko prozesuan

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Urriaren amaieran, etxe ondoko lekukotzak entzuteko aukera izan zuten bizilagunek, Urnietako Udalak Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean antolatutako hitzorduan.

**Xoxokako eskolak, ia ehun urte**

Xoxokako Aierdi baserrikoa da Tere Lasarte, bertan hazia eta hezia. Hori horrela, gogora ekarri zuen aurkezpenean, duela mendebete, gutxi gorabehera, auzolanetik sortu zen eskola, Udalarekin Aldundiarekin elkarlanean, Goiburuk zituen gabeziak osatzeko. Haren esanetan, 1974. urtera arte egon zen martxan eta adin ezberdinetako haurrak ibiltzen ziren nahastuta, sei eta hamalau urtera bitarte, hiru taldetan banatuta. 70. hamarkadan itxi zenean, herrigunera jo behar izan zuten ikasleek eskolara, autobus-zerbitzua erabilia.

Zer gertatu zen, oster, eskolarekin? Itxita egon zen urte luzez, eta aterpetxe moduan ere erabili zen, harik eta 2008aren bueltan, auzotarrek elkargune baten premia plazaratu zuten arte. “Hain zabalak izanda auzoa, ia ez genuen elkar ikusten, bakoitza bere martxan zebilen”. Horrela, eraikinari zukua atera asmoz, auzo elkarte sortu eta espazioaren erabileraren gainean hausnartzeari ekin zioten.

Urnietako Udalak egin zituen konponketak eta, harrezkero, erreferentzitzako tokia bilakatu da auzoan, Lasarteren esanetan, inguruko bizilagunen harremanak estutzeko: merendolak, ipuin-kontaketak, bertso-saioak, ikuskizunak, udalekuak, ikastaroak... “Oso aberasgarria da behin eskola izan zena, gaur egun, auzokoentzako txokoa bihurtu izana”.

**Usurbil, herri zaintzailea**

Orain urte batzuk zorroztu zuen begirada Usurbilgo herriak zaintzaren auzian, pandemiaren aurretik, hain justu ere. Bada, nazioartera zabaldutako osasun-larrialdiak are ageriagoa egin zuten zaintzaren problematikari erantzuteko garrantzia. Hala, epe luzeko prozesu batean dago murgilduta Usurbil eta horren gaineko aurkezpena egin zien urnietarrei egungo alkate den Agurtzane Solaberrietak: “Gure herriak prestatu behar ditugu erronka horri erronkak berak eskatzen duen tamainan erantzun ahal izateko, gure herrikeri guztiek, zaintza behar izanda ere, bizitza duinak eduki ahal izateko”. Era berean, ezin izan zuten aipatu gabe utzi bileran mugimendu feministak egindako lana eta borroka gaia erdigunean ipintzeko, eta, horren erakusle joan den urteko azaroaren 30ean

egindako greba feminista orokorra: “Inflexio puntu bat izan zen eta horrek ere ekarri du, zorionez, zaintzaren gaia instituzioen agendetan egotea”.

Zaintza behar duten pertsonak “erdigunean jartzeko bokazioz”, hiru galderaz osatutako abiapuntuarekin ekin zion Usurbilek bideari, parte-hartze prozesu batekin: nola nahi dugu zainduak izan? Nola nahi dugu zaindu? Zer bitarteko ditu herriak galdera horietatik eratorritako erantzunei erantzun ahal izateko? Alkatearen hitzetan, “oso garbi” izan zuten hasieratik kolektiboa izan behar zela tokiko zaintza ekosistema sortzeko bidea, “behetik gorakoa eta elkarlanean oinarritutakoa”: administrazioa, sektore pribatua, komunitatea, bestelako erakundeak (Osakidetza zein Gipuzkoako Foru Aldundia, esaterako)... Hiru galdera horiei erantzuteko talde-motorra sortu zuten, horrela. “Gai izan ginen zaintzari ikuspegi integral batetik erreparatzeko”, azaldu zuen bileran Solaberrietak, “bai eta zaintzarekin lotura duten erpin eta eragile guztiak barne-bilduko lituzkeen prozesua egiteko ere”. Herritarrek etxean edo etxean egongo balira bezala sentitzea nahi du Usurbilek eta, horretarako, zaintza behar duen pertsonari begira egotea dela gakoa uste du alkateak, bere nahiak errespetatzen dituen arreta-eredu bat eskaintzeko helburuz. Orduan, jabetu ziren zaintza ekosistemaz mintzo baino, “Usurbil herri zaintzailea” ideiaz jardun behar zirela, kontzeptu horrek transbersaltasun handiagoa duelakoan, bestelako eremuak ere interpelatzeraino: hizkuntza-politikak, irisgarritasuna, aniztasun kulturala, mugikortasuna, enplegu-politikak... “Ortizimuga horretatik ari gara eraikitzen herria”.

Parte-hartze prozesu horretatik bi ardatz nagusi dituen bide-orri bat osatu zuten: zaintzailea eta zaindua. Alde batetik, lehenengoaren kasuan, alkatearen ustez, zeresan zuzena du mugimendu feministaren borroka: “Guztiok daukagu zainduak izateko eskubidea, baina ez beste pertsona baten eskubideen kaltetan”. Hitzorduan aditzera eman zuenez, emakume migratuen bizkar erortzen dira gehienetan zaintzalanak, “kasu askotan, esklabutzaren pare”. Hala, errealitate horri ere erantzun egin behar

zaiolakoan da, haren iritziz zaintzek ezin baitute eskubide galararik ekarri: “Zaintza publiko komunitarioaz mintzo gara, baina nola egin hori zaintzaileak batzuetan ez badira komunitatearen parte? Biak egon behar dira barruan, zainduak eta zaintzaileak”. Horixe dute etorkizunerako erronka.

Beste alde batetik, mezua argia da bigarren zutabearen kasuan: pertsona bat, bizi plan bat. Hari horri tira eginez gero, sustraetik aldaketak egin behar direla azaldu zuen bileran hizlariak: “Menpekotasun-balorazioen araberako prestazio eta zerbitzuen logika eta antolaketa alboratu behar da eta pertsonen beharrak aintzat hartuko dituen plan integral pertsonalizatua sortu”. Horrek ekosistemako eragileak artikulatzea dakar, alkateak adierazi bezala, eta horren erakusle, beraiek herrian sortutako lan mahaiak: zerbitzuetako taldea, talde soziosanitarioa eta komunitateko taldea.

Etorkizuneko hutsuneei anbizioz erantzun nahi die Usurbilek, eta zaintzak prebentziotik landu, egoera hauskorrean egon daitezkeen pertsonen integrazio komunitarioa sustatze aldera. Etxean edo etxean egongo balira bezala sentitzea nahi du Usurbilek bertan bizi diren herritar guztiak. Bada horri begira lanean jarraituko dutela berretsi zuen alkateak aurkezpenean, zenbait adibide gogora ekarrita: belau-naldien arteko etxebizitza komunitarioak biltzen ditu Txirikorda proiektuak, gazteen emantzipazioa bultzatu eta bakardade ez hautatuari aurre egin asmoz. Matiak kudeatutako Egurtzegi egitasmoa, berriz, zaintzapeko etxebizitzaren erretzako osatzen du eta egungo erresidentzia-eredu hegemonikoa apurtzen du. Horiekin eta aipatu gabeko beste hamaika proiektuarekin ari da, horrenbestez, Usurbil bere prozesua xehetzen herri zaintzailea izateko bidean.

**Herri lagunkoiak**

Eusko Jaurlaritzak sustatutako proiektua da Euskadi Lagunkoia egitasmoa. Matiako langilea den Ainara Tomasenak egin zuen proiektuaren aurkezpena Lekaion, institutu horrek baitauka ekimena gauzatzearen ardura. Zer behar du herri batek herri lagunkoi izateko? Zehatz azaldu zuen hitzorduan Tomasena. Adineko pertsonen beharrak

kontuan izaten eta horiei erantzuten dien herria da herri lagunkoia, “zahartzen goazen heinean, gure herrian ondo bizitzeko aukera ematen duena”, hainbat aldagai kontuan hartuta: ingurune fisikoa ingurune soziala, harremanak, herrian parte hartzeko aukera, mugikortasuna, irigarritasuna... “Alderdi horiek guztiak izaten ditugu kontuan”. Hori horrela, prozesua osatzeko pausuak azaldu zituen, labur, Tomasena: adineko pertsonen osatutako talde eragilea osatzea izan ohi da lehen urratsa. Gero, udala bidelagun dela, herriaren diagnostia egiten da, lagunkoitasun maila neurtzeko, eta, datu-bilketa hori oinarri, ekintzak antolatzen dira lagunkoitasuna bermatzeko. Askotariko programen adibidea eman zuen hitzorduan: harremanak sustatzeko espazioen antolamendua, bakardadeari heltzeko proiektua, belaunaldien arteko erlazioak lantzeko ekimenak... Antzuola ipini zuen eredu moduan Matia-ko langileak, buru-belarri baitago herria murgilduta prozesuan.

#### Auzotarrak saretzen

Pertsonen bizi kalitatea hobetzeko teknologia, errealitatearen azterketa, aktibazio komunitarioa eta esku-hartze soziala uztartzen dituen egitasmoa da Auzosare. Gipuzkoako arduraduna eta Zabalduzako kide da Garazi Solis. Tokikotasunetik lan egiten dutela nabarmendu zuen aurkezpenean, “garrantzitsua delako herri bakoitza ezagutzeko, bertan dauden baliabideak zein beharrak jakitea. Ez gatzoz ezer ordezkatzera, dagoen hori balioan jarri eta horrekin lan egitera baizik”. Egoera hauskorrean den jendea artatzen dute. Batez ere adinekoekin aritu izan dira, baina

Solisen esanetan, ez dira horretara mugatzen “edonork izan dezakeelako, bizitzako momenturen batean, zaindua izateko beharra”.

Nola eusten diote programan, hortaz, zaintzaren erronkari? Informazio-sistema aliatu eraginkorra dela azaldu zuen Solisek hitzaldian, “kosta” egiten delako, maiz, adibidez, bakardade ez hautatu batean bizi den jendea identifikatzea. Horrela, “gure ideia bada horiek garaiz detektatzea, mendekotasun egoera posiblek ahalik eta gehien lausotu ahal izateko”. Halaber, ezinbestekotzat jo zuen arduradunak komunitatearen rola, “nork beretik, guztion artean erantzun beharreko erronka baita zaintza”. Paraleloki, laguntza soziohegiztailearen garrantzia nabarmendu zuen, batzuetan, esku-hartze profesionala egon behar dela ulertuta.

Faseka egiten dute lan egitasmoan: testuinguruaren irakurketa egin ondoren, hutsuneen identifikazioa egiten dute, horietan eragiteko helburuz. Jarrera, errealitatearen diagnosi kuantitatiboa zein kualitatiboa egiten dute eta, azkenik, aktibazio komunitarioa egiten dute jauzi, herritarrak eragile aktibo izan daitezzen zaintzen sarea ehuntzen. Azkenik, pertsonak nahi izanez gero, laguntza eskaintzen zaio haren bizi-proiektuan oinarrituta. Legorretan, Zestoan, Oreretan edo Oiartzunen dago martxan egitasmoa, baita Hernanin ere. Bada, azken horren adibidea azaltzeko tartea hartu zuten hitzaldian. Herri bakoitzak bere ezaugarriak eta, ondorioz, prozesuak dituela azpimarratu zuen Solisek, “dituzten aukerak eta baliabideak ezberdinak baitira”.



83 urte ditu Marina Delera Caballero eta bertan bizi da. AIURRI

## Tutoretzapeko etxebizitzak Urnietan

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean ireki du Urnietako Udalak laguntza etxebizitzaren baliabidea. Zaurgarriak diren adineko pertsonak ditu ardatz. Aste honetan bisitaldian izan dira Gipuzkoako Foru Aldundiko goi agintariak

#### Erredakzioa URNIETA

Udan ipini zen martxan herriko tutoretzapeko etxebizitza proiektua: adineko pertsonen begira dago, Errekalde auzoan. Urnietako Udalak sustatu du egitasmoa, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Zaintza Herrilab estrategian oinarrituta. Bada, jada, zenbait hilabeteko martxarekin, bisitaldia egin diote zerbitzuari. Astelehenean, lehen orduan, hitzordua egin zuten herrian. Bertan izan ziren, besteak beste, Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia, Maite Peña Zainketetako eta Gizarte Politiketako Diputatu, Jorge Segurado alkatea eta baita beste hainbat udal ordezkari ere.

#### Sei apartamentu

Orotara, sei apartamentu ditu zerbitzuak: bost, banakakoak eta bat partekatua. Alkatearen esanetan, pertsonengan ipini da arreta proiektuaren diseinuan, eta “azken xehetasuneraino, zainketa-eredu berriarekin le-

rrokatuta dago”. Espazio komuna ere baditu egitasmoak, Seguradok dioenez, bertan bizi diren kideen harremanak sendotzeari begira: “Pertsonak dira ardatz nagusia eta etxean bezala egon daitezten egin da diseinua”. Etxebizitza berriarekin batera, igogailua eraiki da, Idiazabal kalea eta Errekalde kalea lotu eta bai bertan bizi direnek, bai herritarrek erabil dezaten. “Etxean goxo egongo balira be-

zala”. Ideia berbera azpimarratu nahi izan zuen Mendozak bisitaldian, haren hitzetan, hori da eta egitasmoaren premisa, hiru helburu nagusirekin osatuta: komunitatea indartzea, arreta nahiz eskaintza personalizatua eta berrikuntza politikoa: “Lanketa handia egiten da, eta bertan bizi diren pertsonen onura hori ikusi dute. Hobeto daude zainduta eta hobeto sentitzen dira”.



Bisitaldi instituzionala izan zen. AIURRI



Xabier Lasa ANDOAIN

Historialariek, legelariak, auzitegi-medikuek, auzitegi-psikologoek eta biktimen arloan adituek osatzen dute Balorazio Batzordea. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean “motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortza eta erreparazioa” emateko xedez sortu zen Balorazio Batzordea. Eta 2016az geroztik ari da lanean.

Hain zuzen, Juana Balmaseda abokatuak eta Jon Mirena Landa legelariak Batzordeak osatu duen laugarren, eta azken, txostena aurkeztu zuten Gasteizko legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordean, urriaren 30an, esan bezala. 102 orrialdek osatzen dute txostena, eta horietatik bost (30-34 or.) Gurutze Iantzi Igerategiren kasuari eskaintzen dizkio (berez, M.G.Y.I. inizialez aipatzen da).

Hasierako lerroetatik, txostenak Iantziaren heriotza “poliziaren zaintzapean zeudela bizia galdu dutenen artean” kokatzen du, eta zehazkiago esanda, “tortura-testuinguru batean gertatutako heriotza”-tzat jotzen du.

Atxiloketa unea gogoratuz ekiten dio kontaktari. “Bere etxean atxilotu zuten, Urnietan, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuko agenteek, 1993ko irailaren 23ko goizaldeko ordu biak inguruan. Atxiloketaren unean oso asaldatuta zegoen, segurtasun-indarrei beldur handia zielako eta bi egun lehenago senarra eta Urnietako kuadrillako beste kide batzuk atxilotu zituztelako. Atxiloketa horien guztien helburua Julio Iglesias Zamora enpresaburua aurkitzea zen. ETak bahituta baitzeukan, eta, poliziaren susmoen arabera, Adarra mendiko lekuren batean egon zitekeen, Urnietako herrigunetik gertu”.

Gertakizunen kronologia laburra egiten du, ondoren: terrorismoaren aurkako legea aplikatuz, inkomunikatu egin zuten, Donostiako 513 Komandantziako kuartelean gauean eduki zuten, eta hurrengo goizean, Madrilgo Tres Cantos-eko Komandantziara eramane zuten. “Ordu batzuk geroago hil zen, poliziaren zaintzapean zegoela. Heriotzaren inguruabar ilunek asaldura eta eztabaida handia eragin zuten. 31 urte zituen”.

Txostena nahiko zorrotza da Iantziaren heriotza zerk eragin zion zehazteko orduan. “Egitatezko

# Gurutze Iantzi Igerategi biktimatzat jo dute ofizialki

EAEko Legebiltzarreko Biktimen Balorazio Batzordeak urriaren 30ean aurkeztu zuen urteko txostenean, besteak beste, aitortza egiten zaio 1993ko irailaren 24an Madrilén guardia zibilen eskutan hil zen Gurutze Iantzi urnietarrari



Gurutze Iantziaren argazki ezagunaren gainean egindako ilustrazioa. AIURRI

presuntzio sendoak daude M.G.Y.I. atxilotuta zegoen bitartean tortura, zigor eta tratu krudel, anker edo iraingarriak eman zitziotela eta horiek heriotza eragin ziotela”.

Ikerketa judizialak aurre egin behar izan zion presuntziorik larriena, “inkomunikatuta atxilotu egon ondoren polizia-etxetik hilda ateratzea” dela dio zalan-tzarrik gabe txostenak.

Bestalde, Balorazio Batzordeak adierazten du bereziki hartu duela kontuan legez kontrakoak izan daitezkeen heriotzak iker-tzeari buruz Nazio Batuen Protokoloak (2016) jasotzen duen interpretazio-ildoak. “Izan ere, estandar hori erabateko erreferentzia bilakatu da nazioartean, inguruabar susmagarrietan gertatutako heriotzak ikertzen diharduten pertsonen jarduketan ebaluazioan, helburutzat hartuta bizitzeko eskubidea babestea, justizia sustatzea, kontu ematea eta erreparaziorako eskubidea bermatzea. Horretarako, heriotza guztien ikerketa eraginkorra bultzatu behar da, heriotza horiek legez kontrakoak izan daitezkeenean edo behartutako desager-tzeen ondoriozkoak izan litezkeela susmatzen denean”.

## Beste bi atxilotuen testigantzak

Egitatezko presuntzioen artean, egoitza berberetan zeuden beste bi atxilotuen lekukotzak ere jaso dituzte espedienteetan; lekukotza

eman zuten horiek, Balorazio Batzordearen aurrean. Adibidez, atxilotuetako baten, E-ren kontakteta, torturak jasaten ari zen aldiatiko batean bizi izan zuen gertakariaren gainean: “Eta, derrepente, tipoa etorri zen. ‘Eh! ¡Venga, venga, venga!’ eta hasi ziren mugimenduan eta, o sea, aurrera, atzera. Ateratzen hasi ziren, zakua jarri zidaten eta kamila bat pasa zen nire ondotik. Orain ni seguru nago Gurutze zela kamilakoa, eta ‘Se nos ha escapado la mano’ entzuten zen eta holako gauzak”.

Egun haietan Tres Cantoseko guardia zibilen egoitzan atxilotuta zegoen K. U-ren bigarren baten lekukotzaren arabera, Gurutze Iantziaren ibilera bereizgarria ezagutu zuen bere atearren burdin barraren azpitik:

“(…) Une jakin batean egoera jasanezina da. Oihuak, oihu batzuk... Buff. ‘Ez nazazue gehiago jo, mesedez, ez nazazue gehiago jo, mesedez...’ Eta oihu burrunbatsuak, belarriak estali behar izateraino, egoera hura jasaten ez nuelako. Eta tira, oihu batzuk... Une latza. Nire artean aritu nintzen, ‘Zer ari da gertatzen hemen? Zenbat jende dagoen! Zer gertatzen da hor kanpoan?’ Hori ez dakit zenbat denboraz gertatzen den... Eta bat-batean, une batetik bestera, dena gelditzen da... Eta itaunketak amaitzen dira, kolpeak gelditzen dira, poltsako saioak amaitzen dira, guardia zibilen ziegako bisitak, mehatxuak, koakzioak, sexu-mehatxuak, dena amaitzen da. Dena amaitzen da. Bukatu baino lehen, entzun eta ikusi egiten dira... Urduritasun handia nabari da. Oihuak, baina ez torturatzen ari den pertsona baten oihuak... Ez! Bestela, aldatuta handia sumatzen da. Jendea aztoratuta bezala. Eta bat-batean, lehen aipatu dudana langa horretatik... ez dakit ohatila bat, gurpildun aulki bat... ez dakit esaten, baina gurpildun zerbait. Eta une horretatik aurrera dena amaitzen da, isiltasuna egiten da. Jateko zerbait ekartzen digute, aurreko denbora guztian ez bezala... ”.

## Auzitegi-medikuaren jardun “arduragabea”

Orain arte aipatutako aspektu horiek eta beste zenbait kontuan izanda, Balorazio Batzordeak berak peritu-txostena eskatu zuen. Eta honek oso iritzi irmoa ematen du auzitegi-medikuntza-

ren jarduerari buruz. “Auzitegi Nazionalako auzitegi-medikuaren jarrera arduragabea izan zen, eta haren jokabidea ez zen egokitu praxi medikora (lex artis ad hoc); horrek diagnostiko goiztiarra eta tratamendu egokia eragotzi zituen”.

Honela deskribatzen du Auzitegi Nazionalako auzitegi-medikuaren jarduna, zehazki: “Goizaldeko 03:25eko esku-hartzean diagnostiko-hutsegite argia gertatu zen. Askatasunaz gabetuta (inkomunikatuta) zegoen eta bularrezurraren atzeko mina zuen paziente baten aurrean, telefono bidezko elkarrizketa baten bidez, bronkioetako prozesu onbera (eztula+mukositate) diagnostikatu zuen, eta mukolitiko bat agindu. Autopsiak ezarri zuen bat-bateko heriotzaren kausa tronbosi koronario bat izan zela”.

Peritu-txostenak zehazten du, berez, diagnostiko oker hutsa ez dela zabarkeria medikotzat edo praxi mediko txartzat hartzen: “Medikuek akatsak egin ditza-kete diagnostikoetan. Hala ere, kasu honetan, akatsa “lex artis ad hoc” irizpidearen kontrako jarduketa baten ondorio izan zen; hau da, bularrezurraren atzeko min bat dagoenean egin behar zen jarduketaren aurkakoa izan zen, 1993ko gida klinikoaren protokoloen arabera”.

Eta gehitzen du: “G.Y.k aipatutakoa bezalako bularrezurraren atzeko mina ez da mukolitiko batekin tratatzeko moduko ez-tul eta mukositate prozesu bronkial baten ezaugarria. Edozein kasutan, larrialdietako gidetik adierazten dute funtsezkoa dela hilgarria izan daitekeen gaixotasun bat baztertzeara, hala nola tronbosi koronarioa”. Eta hala dio peritu-txostenak konklusio-zatian, hitzez hitz: “Zabarkeria lau elementutan oinarritzen da gutxienez: 1. Aurreikuspenik egin ez izana eta emaitza hilgarria saihestu ez izana. 2. Eskatutako eza-gutzak eta trebetasunak egiazta-tu ez izana. 3. Egin beharreko jarduketa bat egin ez izana. 4. Osasun-asistentziari dagokionez, zaurgarritasun-egoera berezian dagoen pertsona baten arriskua ez haztatzea: inkomunikazioa, pazientearen autonomia gauzatzeko ezintasunarekin”.

Ondorioetan, honako hauxe ere adierazten du peritu-txostenak: “M.G.Y.I. osasun-egoera onean ospitaleratu zuten, eta ez



Gurutze lantzi Igerategiren omenaldi-ekitaldia, joan zen irailean, San Juan plazan. AIURRI

zuen inoiz bihotzeko patologiarik izan, nahiz eta arrisku kardio-baskularreko faktoreak izan. 35 urtetik beherako emakumeetan tronbosi koronarioa oso ezohikoa da. Inkomunikazioarekin lotutako estres akutuko egoerak (beste atxilotu batzuek kontatutako beldur-giroarekin eta hark jasan zitzakeen tratu txarrekin batera) M.G.Y.I.ren heriotza eragin zuen faktorea izan zitekeen”.

#### Balorazio Batzordearen ondorioa, zorrotza

Azaldutako egitatezko presuntzio horiek oinarri izanda, Balorazio Batzordeak adierazten du ikerketak ez zuela “ez zehaztasunik ez eraginkortasunik izan, eta, gertatu izan balitz, heriotza zer inguruabarretan gertatu zen argitu ahal izango zela. Ikerketa sakonagoa egin beharko zen auzitegi-medikuntzako alderdiei buruz (heriotzaren etiologia), baita hildakoak zituen kolpe eta hematomei buruz ere. Berezik garrantzitsua da kontuan izatea ezen, polizia-etxean atxilotuta zeuden beste pertsonen agerraldiak eskatu baziren ere, instruktoreak ez zuela ikerketa-lana zabaldu”. Laburbilduz, Balorazio Batzordeak uste du organo judizialek goizegi itxi zutela instruktoria, “akusazio partikularrak eta herri-akusazioek behin eta berriz eskatutako ikerketa-eginbiderik egin gabe; izan ere, ondorioztatu zuten ez zegoela behar bezala justifikatuta kausa eratzeko delitua egin izana, atxilotuaren heriotza hirugarrenek esku hartu ez zutela uste baitzuten”.

Guztiagatik, Balorazio Batzordeak bere 2024ko txostenean adierazi du uste osoa duela “gertatutakoa argitzeko baliagarriak izango ziren ikerketa-eginbideak egin gabe utzi zirela, eta, horregatik, deklaritzen du M.G.Y.I.ren bizitzeko eskubideari eta osotasun fisiko eta moralari (tortura eta tratu txarren debekua) eragin zien giza eskubideen urraketa bat gertatu zela, dimentsio prozesalean”.

#### 2023-2024ko txostena

12/2016 Legeak, hots, “Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketa jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa”-k sortutako Balorazio Batzordeak urtean behin egiten du txostena. Era horretan, 2020ko ekainetik, 238 biktimea aitortu dituzte.

2023ko uztailetik aurtengo ekainera bitarte osatu duten txostena da joan den urrian aurkeztutakoa, laugarrena. Horrek 93 biktimei aitortza egiten die ofizialki; 20 emakumezkoak dira eta 73 gizonezkoak. 20 frankismo garaikoak dira, eta gainerakoak gerotzikakoak.

Aitortutako kasuen artean, zortzi heriotza daude. Tartean dira 1970/05/20an Hondarribian polizia hildako Roke Mendez santurtziarra, 1976ko apirilamiatzean guardia zibilek zauritu ostean Saran hilda agertu zen Bernardo Badiola tolosarra, 1980/01/15ean talde eskuindarrek hildako Karlos Saldise donostia-

rra, edota, esan bezala, Gurutze lantzi.

Bestalde, Balorazio Batzordeko bi kideek legebiltzarrean salatu zutenek, ekainetik ezin izan dute ebazpenik eman, auzitegi medikuak falta direlako.

12/2016 Legeak sortutako Balorazio Batzordeak urtean behin egiten du txostena, eta laugarrengoa da atzo aurkeztu zutena. Era horretan, 2020ko ekainetik, 238 biktimea aitortu dituzte.

#### Egiari Zor Fundazioaren balorazio gazi-goza

Balorazio Batzordearen agerraldia hizpide hartuta, estatuaren biktimek biltzen dituen Egiari Zor Fundazioak balorazio gazi-goza egin zuen biharamunean Donostian egin zuen prentsaurrekoan. Pilar Garaialde, Guardia Zibilak torturatua eta Triple Ak hildako Paulo Garaialderen alaba eta Guardia Zibilak torturatu zuen eta txostenak jasotzen duen Urko Amasek hartu dute hitza fundazioaren izenean.

Balorazio Batzordeak egindako lanaren profesionaltasuna azpimarratu zuten, “lan horrek oinarri ukaezinak ditu: giza eskubideak eta nazioarteko legedia”. Era horretan, aipatu Batzordeak egin berri dituen aitortzak txalotu zituen Garaialdek, “inpunitate osoz erail, zauritu eta torturatu zituzten pertsonentzat justizia-ekintza baitira. Berrezarpen moraleko ekintza bat da, gertatutakoaren egia ezartzen duena, haien aurkako krimenak justifikatu eta legitimatu zituen kontakizun faltsu batek inposatutako ahanz-

turaren-hamarkaden aurkakoa”.

Bestalde, gogoratu zuen gaur egun, milaka direla “aitortza ofizialik gabe jarraitzen duten giza eskubideen urraketa eta hura eskuratzeko aukerarik gabe jarraitzen dutenak”. Gaineratu zuenez, “egoera hau behar bezala zuzendu beharreko anomalia demokratikoa da. Urte gehiegi daramatzagu zain, eta merezi dugu legez aitortuak izateko dugun eskubidea gauzatu ahal izatea”.

Aldi berean, Garaialdek onartezintzat jo zuen Balorazio Batzordeak gogoratu duen bezala, “bitartekoen faltagatik” aitortzen prozesua moteldu izana. “Administrazioak behar diren baliabideak jarri behar ditu batzorde horren zerbitzura, beren lana baldintza ezin hobetan egin ahal izan dezaten, prozesua eraginkorra, dinamikoa eta proaktiboa izan dadin”.

Eskaera zuzena egin zioten Eusko Jaurlaritzari, “aitortzaren legegintzaldia izan behar du honek. Premiazkoa da epe berri bat zabaltzea eskaera berriak izapidetzeko, legearen denbora-eremua egokituz eta bere garrantziaren helduz”.

Azkenik, Egiari Zor Fundazioko kideek adierazi zuten bizikidetzarako demokratikorako funtsezko gaia dela hauxe, eta iragarri zuten bilera-sortari ekin diotela erakundeekin, alderdiekin eta sindikatuekin. “Lehendakariaren erantzunaren zain ere bagaude, harekin guzti hori jorrazteko”.

#### Gurutze lantzi eta justizia: lehenbiziko urratsa

Lehenbiziko urrats gisa hartu behar da EAEko Legebiltzarren menpeko den Biktimen Balorazio Batzordeak Gurutze lantzi Igerategi biktimeentzat hartzea ofizialki. Urrats gehiago etorri beharko lirake segidan, biktimen arloan nazioarteko zuzenbideak onartzen duen “Egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatze bermeak barne” printzipioari jarraiki. Hots, Madrilgo gobernuak ikerketa independentea abian jarri beharko luke bere menpeko instantzien (segurtasuna indarrak, medikuforentseak, epaileak...) jarduna ikerketagai izanik, erantzukizunak eskatzeko, eta aitormen publikoa eskaintzeko biktimari eta bere senitartekoei.



Arrakasta itzela izan zuen Tonbolak. Uste baino lehenago agortu ziren txartel guztiak. AIURRI



Maren Gallego gaztetxoak eskuratu zuen bizikleta. AIURRI



Txomin Parrillako kideek prestaturiko pintxo guztiak banatu ziren. AIURRI



Gaztañaga sagardogegiaren eskutik txotxaz gozatzeko aukera izan zen. AIURRI



Haurrak, gazteak eta helduak dantzan jarri zituen Gaur 8 taldeak. AIURRI

# Jendetza elkartu zen Larramendi Bazkunak antolatu zuen Azoka Berezian

Egoitza berria eskuratzeko diru-bilketak bultzada handia jaso zuen aurreko larunbatean, ehunka herrikide hurbildu baitzen Larramendi Bazkunak Goikoplazan antolatu zuen Gastronomía eta artisau azokara. Tonbolak ere arrakasta itzela izan zuen

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Azoka igaro berritan, honatx Larramendi Bazkunaren lehen balorazioa: "Oso pozik gaude hain denbora laburrean hain ekintza arrakastatsua antolatzea lortu dugulako. Herritarren erantzuna apartekoa izan da. Andoaindar ugari hurbildu zen

Goikoplazara eta ez ziren izan gutxi Aiztondo eta Urnieta aldetik hurbildu zirenak. Bisitari horiei guztiei, beraz, eskerrik asko! Arrakasta horri esker, egoitza berria eskuratzeko garrantzi handiko bultzada jaso dugu. Esker berezia ere, gurekin bat egin duten negozio eta mer-

katariei. Bereziki, Gaztañaga sagardotegiari, Fede Pacha eta Txomin Parrillari eta Iker Etxebeste eta Brew and Roll etxeari. Estimatzekoa da euren eskuza-baltasuna. Ahaztu gabe, nola ez, tonbolarako ekarpena egin duten merkatariei, Andoaingo Udalarari eta Rural Kutxari".

## Postu ugari, Goikoplazan



**IKER ETXEBESTE**  
BREW AND ROLL

"Kattalingorri 'Cyder' sagardo edaria salgai jarri dugu. Sagarra du oinarrian eta fermentazio garaian jengibre, lima eta arandanoak eranstean dizkiogu. Frexkoa eta erraz edateko modukoa da".




**ALAZNE INTXAUSPE**  
BEJONDEIZULA

"Barazki ekologikoa da gurea eta, horrez gain, kontserbarako purea eta gure sagastietako sagar zukua ekoizten dugu. Azokara sagarra, porrua, azkeneko piparrak, letxu ezberdinak eta lore lehorrak ekarri ditugu".



**AMAIUR ETXEBARRIA**  
RBELE

"Eskuz eta Euskal Herrian egina, horixe da gure goiburua. Telaz egindako osagaiak aurki daitezke gure postuan, eta baita belarritakoak ere. Instagramen r\_belde kontuan aurkituko gaituzue".



Toka txapelketako irabazlea Mikel Arregi izan zen, eta bigarrena Unai Agirrezabal. AIURRI



Malou Henriksen izan zen Andreurdiñarena Irrintzi txapelketako irabazlea. AIURRI



Laukotea, Iñaki Mujika perkusio-jolea bidelagun zutela. AIURRI

## Tonbolaren babesleak

- Adats Ileapaindegia
- Aitor Barandiaran
- Albaola Elkarte
- Amabi
- Amantegi
- Anaiak taberna
- Anari
- Arruti Gozotegia
- Aspilla
- Atxandigaina
- Bejondeizula
- Berria
- Betilore
- Bizibiziki
- Buruntzape SL Martin Ugalde
- Brewand Roll
- Donostia Kultura
- Elektropottotte
- Elkar
- EM Zirrimarra
- Erein
- Ernaitza liburudenda
- Eskune
- Euskal Itsas Museoa
- Ez Kexa
- Gaztañaga Sagardotegia
- Gipuzkoako Bertsozale Elkarte
- Gorostidi Burdindegia
- Hika
- Hika Gastronomikoa
- Hika Txakolindegia
- Hiru katu
- Hotel K10
- Igela
- Irrien Lagunak
- Irrisari Land
- Iturbe Oinetakoak
- Itxaropena Inprimategia
- Itzal Diseinuak
- Jamel Artesania
- Joseba Egurrak
- Karrikiri Elkarte
- Kayak Basque
- Keinu
- Koparia
- Kosta Itsas Egurrak
- KOT Euskal Herria
- La Casa del Café
- La Perla
- Labores Arantza
- Li denda
- Mañeko gozogintza
- Mendexa Abentura Park
- Mxuk
- Napar bideak elkarte
- Ormendi kirolak
- Pepi Lentzeria
- Pikara Magazine
- Pottoko
- Puntutan
- Rbelde
- Real Sociedad futbol taldea
- Rural Kutxa
- Sualai Forja
- Theys Belleza
- Txalaparta
- Tximeleta
- Xare
- Xarma
- Zaik
- Zatzazkit
- Zelai Talasoterapia
- Ziku bitxiak
- Zituene
- Zuhaitzen etxeak



AZOKAK EMAN ZUENA  
ATAL BEREZIA WEBGUNEAN

www.aiurri.eus

## IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

**Euskaraz hezitako belaunaldiari erdaraz ari zaio kirol prestatzailea**

Belarriak erne jarriz gero, azkar batean jabetuko gara Andoaingo Allurralde kiroldegian eta Ubitarte futbol zelaietan prestatzaileek ahoan darabilten hizkuntza erdarara dela. Euskara hutsean ari ohi dena salbuespena da, zoritxarrez. Urrian, hainbat egunetan, entzundakoa da hurrengo lerroetan jasotakoa.

Ostiral arratsaldea da eta Allurralden kantxaren alde banatan eskubaloiko bi talde ari dira lanean. Alde batean, nesken nerabe taldea dugu. Beste aldean, gazteagoak diren mutikoak. Neskei erreparatu diogu, lehenik eta behin. Entrenatzaileak ez ditu hogeitaz baina gehiago izango. Euskaraz aipamen apurra egiten baditu ere, estrategiari eta jokoari dagozkion xehetasunak azaltzeko orduan erdarara jotzen du: "cruces", "laterales", "vete al hueco", "no has tirado ninguna, y no me pongas esa cara...". Kantxaren bestaldean, mutikoak. Une jakin batean entrenatzaileak jokalaria guztiak biribilean jarri eta hizketan hasi zaie. Euskaraz hasi da, baina berotu ahala erdarara jo du. Intentsitate handiagok eskatzen die jokalariei: "Ataca, "suelta", "sigue", "va", "retrocede", "sigue", "donde esta el balón?".



Badugu txartel gorria nori atera. GOIENA

Asteazken arratsaldea da, Ubitarten. Herriko futbol taldeko infantil mailako neskek bi taldeetan banatu dituzte, aurtien. Entrenatzaileak eta laguntzaileak, guztiak, euskaldunak dira. Praktikan, baina, oso bestelakoa da talde batean eta bestean komunikatzeko duten ohitura. Aurkia eta infrentzua topatu dugu zelai berean. Talde bateko prestatzailea euskara hutsean ari zaie jokalariei, eta besteak erdarara baino ez darabil. Hurrengo asteetan, ordu eta egun berean toki berera hurbilduz gero, joera errepikatu egiten dela frogatu dugu. Euskaldunak dira entrenatzaileak, bai. Baina batak eta besteak hizkuntzaren erabileran egiten duen hautuan alde handia dago.

Larunbat goiza, Allurraldeko harmailtan. "¿Entendeis?", saskibaloiko prestatzaileak arbelean azaldutakoaz galdera egin die mutikoei. Kantxan sartzeko zain dira, Athletico San Sebastianen aurkako partidari ekiteko. Une horretan jokatzeko ari direnak neskek dira, Bera Beraren aurka. Larunbat goiza da eta, bezperan, prestaketa lanetan ikusi genituen. Bada, partidaren bezperan eta egunetan bertan, bietan, entrenatzailea erdarara hutsean ari zaie jokalariei.

Eskubaloiko, futboleko eta saskibaloiko entrenatzaileak erreferente diren aldetik, hizkuntzaren erabilera jakina egitea ez da txikikeria. Gaurkoz, panorama ilun samarra da Andoainean: edozein dela taldeko kirol-jarduera, oro har, euskaraz hezitako belaunaldiari erdaraz ari zaio kirol prestatzailea.

Kirola, adin txikitik, aisialdiari eta heziketari loturiko jarduera da eta, urteotan, Andoaingo Udalak eta herriko kirol taldeek euskararekiko erakutsi duten konpromisoa argia da. Asmo on hori hurrengo katebegan hausten da: kirol talde jakin baten izenean lanean ari den entrenatzailearen jarreran, hain zuzen.



Loitegi. ORIAMENDI

**Asteburuan ekingo diote bigarren itzulari binakako txapelketan**

Binakako Erremonte Txapelketako lehen itzulia amaitu da eta ostiral honetan ekingo diote bigarrenari. Ansa-Juanenea bikoteari asko zaildu zaio txapelketa, eta dagoeneko ezin dute hutsik egin. Urriza-Larrañagaren aurka ariko dira, ostiral honetan.

**Lehen itzuliko sailkapena**

1. Segurola-Barrenetxea IV
2. Urriza-Larrañaga
3. Ezkurra II-Azpiroz
4. Ansa II-Juanenea

**Loitegiren lehen garaipena, bigarren mailako txapelketan**

Loitegi eta Zubirik lehen garaipena lortu zuten, Irazu eta Zaldua markagailuan atzean utzita (2-0).

**KIROL-EMAITZAK**

Aiurri.eus webgunean, Kirolak atalean klik eginez gero, futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko ordutegiak, emaitzak eta sailkapenak ageri dira.



Alebin mailako kideak. BURUNTZALDEA IKT

**Buruntzaldea IKT taldeko igerilari gazteak, martxan**

Alebin taldeak lehiari hasiera eman zion aurreko larunbatean, Lasarte-Oriako Maialen Chourraut igerilekuan ospatu zen Alebin Ligako 1. jardunaldian. Buruntzaldea IKT taldekoek helarazi dute kronika, Aiurrira: "Gure klubeko honako zortzi kide hauek izan ziren lehiari: June Apeztegia, Izaro Bautista, Aiala Erro, Aitor Ormazabal eta Lier Garmendia, 2012ko haurren artean; eta Kerman Miguel, Irai Jauregi eta Urko Azpiazu, 2013an jaiotakoaren artean. Guztiek lehen jardunaldi oso ona egin zuten. Orokorrean oso pozik atera ginen. Lehen jardunaldian euren burua proban jartzeko parada ederra izan zuten denek eta, markak alde batera utzita, igeriketa teknikan eta taktikan lan egiteko aukera ona baliatu zuten denek".

Hurrengo jardunaldia Ordizian izango dute, eta lau estiloetako 200 metrokoa, estilo libreko 100 metrokoa eta estilo libreko 4x100 errelebuak izango dira egin beharrekoak. Hasiberriek 50 metro bizkar proba izango dute.

**BINAKAKO** Orona Fundazioa

**AZAROAK 15 OSTIRALA** | 18:00ETIK AURRERA GALARRETA JAI ALAI HERNANI

**1. PARTIDA**  
 EZKURRA II • ZUBIRI vs  
 ALDABE • AZPIROZ

**2. PARTIDA**  
 ANSA II • JUANENEA vs  
 URRIZA • LARRAÑAGA



AIURRI

## Lehen porrota eta, halere, lider

Gizonezkoena Gorengo Erregional mailan Euskaldunaren lehen porrota iritsi da 8. jardunaldian. Zazpi partidatan partidarik galdu gabe egon izanak abantaila eman die eta, oraindik orain, lidergotzan darraite. Aurreko asteburua Mariñoren zelaian 1-0 galdu zuten. Amara Berriren aurka jokatu dute asteburu honetan, Donostian.



URNIETA KE

## Sailkapenean aurrealdean dira

Emakumezkoen Gorengo erregional mailan 2. multzoan jokatzen ari da Urnieta, eta lehen sei partidatan itxura oso ona eman dute: 3 garaipen lortu dituzte, eta bi berdinketa. Ondorioz, sailkapenean 3. postuan sailkatuta daude. Aurreko asteburuan Goierri Gorri B taldea garaitu zuten Ordizian (0-2). Asteburu honetan Ilintxaren bisitaldia jasoko dute.

## Juniorren lehen garaipena

Partaidetzako ligan jokatzen ari da junior mailako Ganbara saski taldea. Mutilek bosgarren jardunaldian lortu zuten denboraldiko lehen garaipena. Hondarribia garaitu zuten, hain zuzen, oraindik garaipenik eskuratu ez duen talde bakarra. Larunbat honetan Inter taldea hartuko dute etxean. 10:30ean hasiko da partida, Allurralden.



ARTXIBOKO IRUDIA



Mikel Saez. MIKEL SAEZ DE URABAIN

## Mikel Saez de Urabain, ostegun honetan Saroben

Amaia Agirreren omenezko zikloak ostegunean izango du jarraipena, Mikel Saez de Urabain ordiziarraren eskutik.

Hainbat lagunekin Baghirati III mendiko mendebaldeko erztean egindako igoera azalduko du. Indian dagoen mendia da, eta 6.454 metro ditu. Emanaldiaren ondoren nahi beste galdera egin ahal izango zaizkio protagonistari.



Txaro Tomasena. AIURRI

## Tomasena hizlari ariko da Saroben, hilaren 21ean

Urnietako Jabekuntza Eskolaren baitan, Txaro Tomasena herrikidea hizlari ariko da Saroben. Datorren azaroaren 21ean izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita. Gibraltarreko itsas-zeharkaldia egin zuen igerian eta horren ondorioz oihartzun handia izan zuen hedabideetan. 78 urterekin kirola egiten jarraitzen du. Behar-beharrezkoa duela dio, maiz, urnietarrak.



Arruti urnietarra, aurtengo Sanmieletan. AIURRI

## Marka saiakera egingo dute igande honetan Oialumen

Nerea Arruti kanako enbor batekin ahaleginduko da; Malen Barrenetxea, berriz, oinbiko egur batekin

### Erredakzioa URNIETA

Erakustaldi apartaz gozatzeko sarrera doakoa da. Bertaraten denak goi mailako kirolariak lehiari ikusiko ditu eta, bereziki, lanean serio demonio ariko diren bi aizkolari: Malen Barrenetxea eta Nerea Arruti. 15 urteko gaztea oinbiko enborrekin saiatuko da. Urnietarra, aldiz, kanako enborra mozten ahaleginduko da.

### Igande honetan, Oialumen

Protagonista nagusiak bi emakumezkoak badira ere, erakustaldia osatzeko aizkolariak eta harrijasotzaileak ariko dira. Aizkoran Iker Vicentek eta Eneko Saralegik parez pare izango dituzte Jokin Basozabal eta Ibai Soroa. Harria jaso, berriz, Mikel Urrea eta Maddi Gesalaga.

Hitzordua igande honetan da Oialumeko biltokian, 12:00tan.



Barrenetxea. AIURRI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ZIKLOA

**URNIETA Ikus-entzunezkoa**  
"Bhagirathi III", Mikel Saez.  
19:30, Sarobe.  
Azaroak 14, osteguna.

## KONTZERTUA

**ANDOAIN Kontzertua**  
Junkal Guerreroren eskutik.  
19:00, Bastero Kulturunea.  
Azaroak 16, larunbata.

## TAILERRA

**ANDOAIN Txapa tailerra**  
Azaroaren 25eko ekitaldia.  
17:00, Ludoteka.  
Azaroak 21, osteguna.

Giltzatakokoak eta txapak egiteko.  
17:30, gazte Lokala.  
Azaroak 23, larunbata.

## SOLASALDIA

**URNIETA "Emakumeak kirolean"**  
Txaro Tomasena.  
18:00, Sarobe.  
Azaroak 21, osteguna.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. AIURRI

**ANDOAIN "Ztandap" bakarrizketa**  
Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak generoa hartuko dute umoregai eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira betaurreko moreak jantzita.  
19:30, Bastero Kulturunea. Azaroak 23, larunbata

## ANTZERKIA

**ANDOAIN "Ametsen mundua"**  
Patata Tropikala taldearen eskutik.  
17:00, Ludoteka.  
Azaroak 22, ostirala.

## TAILERRA

**ANDOAIN Ikastaroa**  
Autodefentsa feminista.  
09:30-14:30, Allurralde.  
Azaroak 23, larunbata.


## ANTZERKIA

**URNIETA "Mira hadi"**  
Abaitua argazkilariaeren historia.  
19:00, Sarobe.  
Azaroak 24, igandea.

## MANIFESTAZIOA

**ANDOAIN "Ametsen mundua"**  
Mugimendu feministaren ekimena.  
18:30, Goikoplaza.  
Azaroak 25, astelehena.

## ZINEMA




## ANDOAIN

## BASTERO

**La virgen roja**  
Azaroak 17, ig.  
19:30.  
Azaroak 18, astel.  
17:00, 19:30.  
**Rescate en Africa**

Azaroak 17, ig.  
17:00.

**Gladiator II**  
Azaroak 22, ostirala.  
19:30.  
Azaroak 24, igandea.  
19:30.  
Azaroak 25, astelehena.  
17:00, 19:30.



## SINOPSISIA

**La virgen roja**  
**Zuzendaria:** Paula Ortiz. **Aktoreak:** Najwa Nimri, Alba Planas, Patrick Criado, Aixa Villagran, Jorge Uson, Pepe Viyuela...  
**Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra. **Iraupena:** 113 m.

## Benetako gertaera, pantaila handira

Etorkizuneko emakumea izateko sortu eta hezi zuten Hildegart. 30eko hamarkadako Espainiako buru distiratsuenetako bat eta emakumeen sexualitateari buruzko Europako erreferenteetako bat bihurtu zen. 18 urterekin, Hildegart askatasuna esperimendatzeko hasiko da, eta Abel Vilella ezagutuko du. Abel Vilellak mundu emozional berri bat esploratzen eta amaren kontrol gogorretik aldentzen lagunduko dio. Ama beldur da bere alabaren gaineko kontrola galduko ote duen. Bi emakumeek talka egingo dute



1933ko udako gau batean, Hildegart proiektuari amaiera emanaz.

ZOKKETA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

ANTZERKIA

**Urnietako harpidedunen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu.**

Parte hartzeko modua:  
Idatzi "Miñan", zure izen-abizenak eta bidali:  
\* Whatsapp: 619 163 537  
\* E-posta: urnieta@aiurri.eus

## MIÑAN ARTEDRAMA

**Abenduak 3, asteartea.**  
**19:00. Sarobe, Urnieta.**

«Ibrahimaren historiak ezin hobeki laburbiltzen du migratzaileen odisea». Amets Arzallus

Ibrahima Balde Ginean jaio zen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zuen zeharkaldian. Afrikatik Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen. Miñan (anaiatxoa) Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua eta Artedramak antzerkira egokitua. Ikuskizuna euskaraz.



Unidad Alavesa taldea. UNIDAD ALAVESA

## Elkartasun eguna, ostiral honetan, Andoaingo Gaztetxean

Zapotxin pailazoa, pintxo-potea, errifak, Unidad Alavesa eta Bidelapurak taldeen kontzertua...

### Erredakzioa ANDOAIN

Askotariko jarduerak iragarri-ta daude, ostiral arratsaldean hasita, Andoaingo Gaztetxean. Izan ere, Elkartasun Egunaren afitxa ugari ikusgai daude herrian barrena jarrita. Zapotxin Hernaniko pailazoaren emanaldiarekin hasiera emango diote hitzorduari. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta sarrerak aurretik salgai daude Ernaitzan, 5 euroko prezioan.

Ordu berean, rokodromoan, doako eskalada ikastaroa izango da 8 eta 14 urte bitartekoentzat.

Jarraian, pintxo-poteari ekin-gio diote. Jateko eta edateko tartea izango da, beraz. Eta askariaren ondoren, errifan zoketa: sariak lortzeko aukera aparta. Arratsaldeko 18:00tan hasita, sari potoloak iragarri dituzte: 300 euroko balioa duen bidaia, sagardotegia 2 lagunentzat, Iruberrin 4 lagunentzat afaria...



Zapotxin pailazoa. KRONIKA

### Kontzertua

Gaueko 22:00tan hasita, Unidad Alavesa eta Bidelapurak taldeak igoko dira oholtzara. Ondoren, DJ Stepi disko-jartzailea. Sarrerak 18:00tan salgai jarriko dituzte, 10 euroko prezioan.



Eskalada ikastaroa 8 eta 14 urte artekoentzat izango da. ERMUA KIROLAK



Garagardoaz gozatzeko aukera dago Eteneta elkartearen, larunbatean. AIURRI

## Garagardo Azoka, larunbat honetan, Eteneta elkartearen

Bazkideei eta, oro har, urnietarrei zabalik dago ekimena. Eguerdiko 14:00tan abiatuko da

### Erredakzioa URNIETA

Garagardoazaleek eta, zehatzago esanda, Garagardo Azoka klasikoan otordua egitea gogoko dutenek aukera bikaina izango dute Urnietan, Eteneta elkartearen. Izan ere, Idiazabal kaleko 5. zenbakiko etxabearen Garagardo Azokaren XII. edizioa antolatu du. Aukera zabala dago: Garagardo horia edo txigortua, ukondoa, saltxitxak eta patata purea salgai. Bapo jateko eta edateko aukera izango da, beraz.

### Txartelak salgai

Txartelak erosteko aukera izango da ostiral honetan, elkartearen bertan, iluntzeko 19:00tatik 20:00etara. Eta larunbatean ere, lehenago agortu ez badira, salgai izango dira azken txartelak.

Arratsaldeko 14:00tan abiatuko da Garagardo Azoka eta bertara gonbidatuta daude bazkideak

eta baita bazkide ez direnak ere. Denei irekita dagoen ekimena da, ondorioz. Gogoan izan "Prost!" dela topa tradizionalaren adiera Alemanian.

### Prezioak

Produktuak eta prezioak honako hauek dira:

- Garagardoa, litro erdia: 4 euro.
- Saltxitxa patata purearekin: 4 euro.
- Ukondoa patata purearekin: 15 euro.
- Garagardo pitxarra: euro 1.
- Konboa (ukondoa, 2 saltxitxa eta 2 garagardo): 25 euro.

Garagardo Azokara joateko asmoa duenak hobe du, beraz, ostiral honetan bertan txartelak ziurtatzea. Esan bezala, elkarte-kideek txartelak salgai jarriko dituzte ostiral iluntzean, 19:00tan hasita.

## POSTONTZIA

### EGUZKI ANDOAIN

## Saretxo metalikoak Andoaingo bi zubietan

Eguzki talde ekologista eta antinuklearrak 2019an abiatu zuen ibaiak eta itsasoak babesteko kanpaina. Hainbat udalerrietan bertako Udalekin elkarlanean ibaien inguruetakoa eta zubien azpikaldeko barandetan, saretxo metaliko babesleak jartzea hala nola itsasoa hondakinez babestea edozein herritako kaletan egiten ditugun jarduerekin zerikusia duela jabetzea izan zen kanpainaren hasierako funtsa.

Denbora honetan guztian hamarnaka herrietan ipini dira saretxoak, dagoeneko ehundaka eta ehundaka metro ipiniak izan dira. Saretxo hauek, lurtean dauden plastikokoak ibaira erortzea ekiditen dute, eta, hortaz, ibaiak eta itsasoa, azkenik, babesten dute.

2022ko martxoan udalean erregistratu genuen Andoainen ezartzea. Urte horretako uztailean "oilategiko" sare antzeko bat jarri zen hainbat puntuetan, zeinek zalantza batzuk sortu zituen, segurtasun arrazoiegatik eta baita itxura edo estetikagatik ere. Denbora dexentean gaia geldirik egon eta gero eta aldarrikapen kanpainak kalean egin ostean, azkenean aproposak diren saretxo metalikoak ezarri dituzte Kaleberriko zubian ("Txurreriakoa") eta Santa Krutz elizan pareko zubian. Bere garaian ordea, gainontzeko zubiak eta pasealekuak babestea eskatu genuen, baita Makaldegian irtenbide integral bat bilatzea. Gaiari jarraipena egiten segituko dugu. Bitartean, gogoratu hondakinik onena sortzen ez dena dela eta honekin hondakinak arduraz kudeatu eta zaborrontziak erabiltzeko deia berresten dugu.

Itsasoa Andoainen ere hasten delako!





# Valentziaren aldeko jaialdi solidarioa, Bastero Kulturgunean

Azaroko lehen astean, Andoaingo herritarrak elikagaiak eta garbiketarako material ugari jaso zuten. Gertaera latzaren aurrean andoaindarren elkartasuna ez da horretara mugatuko, datorren azaroaren 24rako jaialdi solidarioa antolatu baitute

## Erredakzioa ANDOAIN

Andoain Solidario taldeak Valentziako hertiari laguntzeko ekimen berria prest du: jaialdi solidarioa. Datorren azaroaren 24an izango da, Bastero Kulturgunean. Ohar bidez xehetasunak eman dituzte: "Ekimen honen bidez bilduko den diru guztia DANAK eragindako kalteak arintzeko bideratuko da, eta sarrerak Basteron eta Elizondo tabernan eros daitezke, 5 euroko prezioan". Halaber, Basterora joaterik ez dutenez, "0 lerroa" izango da eskuragarri. Horretarako, Caja Rural banketxeke kontu korrontea ireki dute, dohaintzak egiteko: ES88 3008 0159 8753 2893 1422.

Deialdiarekin bat egin dute heziketa eta kultur mailako eragile ugari: Klaap dantza eskola, Joseba & Bakartxo dantza eskola, Sevillanak, Azelain ballet elkarte, Urki dantza taldea, Olagain Udal txistulari elkarte, Maizorri txalaparta-eskola, Malkogarriyak, Unai Garcia, Andoaingo Bertso eskola, eta Imanol Iribarren-Salva Parada-Fede Abreu hirukotea.



Elikagai eta produktu ugari jaso ziren Andoainean, aurreko astean. AIURRI

"Andoaingo herritarrek elkartasuna eta hurbiltasuna adierazteko" aukera polita delakoan dira Andoain Solidario ekimeneko kideak. Andoaindarrei dei egiten diete datorren azaroaren 24an Basterora hurbildu daitezen.

Urriaren amaieran hasita, herritar ugari laguntza eman du Valentziara bideratzeko. Aurreko astean, esaterako, An-

doaingo Udalak eskertza adierazi zuen ohar bidez: "Anbrosia Olabide eraikineko bilketa puntura euren dohaintza egitera gerturatu den lagun bakoitzari, baita bilketa momentuan lagundu duten edo lekura bertara laguntzera doan bolondres taldeari ere eskerrik asko".

Laguntzeko aukera berria izango da, beraz, laster.

Hilaren 24an,  
12:00tan  
hasita



Basteron da hitzordua. AIURRI

## 5 euroko laguntza

Emanaldi solidarioan udalerriko hainbat taldek parte hartuko dute. Sarrerak ostiralean salgai jarriko dira Basteron eta Elizondo tabernan, 5 euroko prezioan. Halaber, Basterora joaterik ez dutenez "0 lerroa" izango da eskuragarri: Rural Kutxa ES88 3008 0159 8753 2893 1422.



Unai Garcia. AIURRI

## Artista ugari

Klaap, Joseba & Bakartxo dantza eskola, Sevillanak, Azelain, Urki, Olagain, Maizorri, Malkogarriyak, Unai Garcia, Bertso eskola, eta Imanol Iribarren-Salva Parada-Fede Abreu hirukotea igoko dira oholtzara.



Abenduan banatuko dute. AIURRI

## Andoaingo Udal egutegiko argazkien egileak

Lehiaketara 76 lan aurkeztu dituzte, eta horietatik 12 izan dira sarituko dituztenak

## Erredakzioa ANDOAIN

Merkataritza hizpide hartuta, honako hauek dira irabazleak:

1. Unai Peñalvo Arregi
2. Miguel Cavero Carazo.
3. José Miguel Romero Barco.
4. Imanol Fernandez Carballo.
5. Nahia Rodiño Lopez.
6. J.Pablo Fernandez Ramirez.
7. Ane Jalon Zatarain.
8. Fernando Anza Rey.
9. Hilario Rodeiro Cabanas.
10. Julian Guerrero Viejo.
11. J.Angel Amuchastegui Esnaola.
12. Amparo Alonso Villares.

Zenbaki bakoitza urteko hila-bete bakoitzari dagokio

## Hasi dira Lasarte-Oriaranzko bidea eraikitze lanak

Errepidearen eraikuntzarekin Zabaleta auzuneko bizilagunen egoera nabarmen arintzea espero da

## Erredakzioa URNIETA

Egunotan martxan dira Lasarte-Oriaranzko bidea eraikitze lanak. Urnietako Udalak adierazi duenez, hasiera batean, obraren kostua "bere gain" hartuko du eta, ondoren, Babiloniako

auzune berriko jabetzari "jasanaraziko" zaio, "aurretik sinatutako hitzarmenaren arabera". Obrek sei hilabete iraungo dutela aurreikusten da, eta 1.051.094,97 euroko lizitazio-aurrekontua dago horiek egiteko.

## Zabaleta auzoko bizilagunen egoera arintzeko neurria

Gogoan izan behar da bide horri esker nabarmen arindu daitekeela Zabaleta auzoko bizilagunen egunerokoa. Izan ere, auzotarrek salatu izan dutenez, "urte luzez pairatzen ditugu zikinkeria, zarata, kutsadura eta arriskua. Laburbilduz, mota guztietako hondakinak garraiatzen dituzten 400 kamioi inguru igarotzen dira egunero gure auzotik, bizilagun batzuen leihetatik metro erdira".



Errepide berria eraikitze lanak. UDALA